El Impuesto sobre Hidrocarburos es el más importante de los siete que tratamos en este apartado al representar el 64,4% de los derechos generados entre todos ellos (62,9% en 2016). El aumento de los derechos alcanza el +5% (+22.370 miles de euros).

2014an berrikuntza batzuk gertatu ziren, gogorarazi behar direnak:

En 2014 se produjeron algunas novedades que conviene recordar:

Alde batetik, kudeaketa propiodun hidrokarburoen gaineko zerga bi azpikontzeptutan banatu da: Estatu Mailako Tasa Orokorra duten Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia eta Estatu Mailako Tasa Berezia duten Hidrokarburoen gaineko Zerga.

Por un lado el Impuesto de Hidrocarburos de gestión propia se ha subdividido en dos subconceptos: Impuesto Especial sobre Hidrocarburos Tipo Estatal General y el Impuesto Especial sobre Hidrocarburos Tipo Estatal Especial.

Gainera, figura berri bat agertu da: Autonomia Erkidego Mailako Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia. Epe luzera, figura horrek zero diru-sarrera garbia sortu behar du, diru-sarrera hori Autonomia Erkidegoei itzuli behar zaielako, horiek baitira produktuaren hartzaileak eta zero ez den tasa autonomikoa dute ezarrita. Egun Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako tasa % 0 da eta beraz, tarte honek ez du diru-sarrerarik sortzen.

Además existe una nueva figura que es el Impuesto Especial sobre Hidrocarburos Autonómico. Esta figura, a largo plazo, debe generar un ingreso neto de cero ya que el ingreso debe ser devuelto a las Comunidades Autónomas, receptoras del producto y que tienen establecido un tipo autonómico distinto de cero. Actualmente el tipo establecido en la Comunidad Autónoma Vasca es del 0% , por lo que este tramo no genera ningún ingreso.

Aurreko paragrafoan ere adierazi den bezala, nahiz eta epe luzerako sarrerak zero izan behar duen, urtetik urterako mugimenduak gerta daitezke eta

Aunque, como se ha indicado en el párrafo anterior, a largo plazo el ingreso debe ser cero se pueden producir desplazamientos interanuales que

horiek, urtero, saldo positiboak edo negatiboak eragin ditzakete.

Hori izan da 2017an gertatu dena; ekitaldian Hidrokarburo Autonomikoak maila erlatiboan -430 mila euroko hondar-sarrera eragin du, hau da, 2.471 mila euroko sarrera gordinaren eta -2.901 mila euroko itzulketen emaitza dena. Dena dela, 2016an sarrera hori +641 mila eurokoa izan zen eta, ondorioz, urtetik urterako alderaketak -1.071 mila euroko jaitsiera ekarri du.

Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez, goian aipatu diren hiru osagaietan banatuz gero (ez dugu kontuan izango inportazioen doikuntza) honakoa ikusten da: barruko eragiketen doikuntzak (-12.789 mila euro) eta Ekarpenei buruzko Legeko doikuntzak (-39.700 mila euro) urtetik urterako hazkuntza negatiboa eragin dute. Kudeaketa Propioak bakarrik izan du urtetik urterako aldakuntza positiboa, (+75.930 mila euro eta +% 7,2).

Gogora ekarri behar dugu aipatutako bi doikuntzetan itzulketak soilik (sarrera negatiboa) sartzen direla; beraz, haien aldakuntzak eginiko itzulketen hazkundeei eta murrizketei zor zaizkie.

Azpimarratu behar da hala “Hidrokarburoak kudeaketa propioak” nola “Hidrokarburoen gaineko Zerga” multzo osoak eragiten dituen eskubideek euren gehiengo historikoa lortu dutela 2017an. Lehen kasuan 1.127 milioi eurorekin eta bigarrenean 472,7 mila eurorekin.

Aurrekontuari dagokionez, Hidrokarburoen multzo osoak aurreikusitakoa baino -% 3,2ko burutzapen txikiagoa du zerga honek.

## — Aseguru primen gaineko zerga

Kontzeptu horrek onartutako eskubideak, I. kapitulutik VIII.erako kapituluetan jasotzen diren eskubideen % 0,5ekoak baino ez dira.

Kontzeptu honengatiko sarrerek, 2016ko 40.841 mila euro izatetik 2017an 40.784 mila izatera igaro direlako (-% 0,1), geraldia izan dute. Sarrera handiko geraldi hori garrantzitsutzat jo behar da, 2014an ere

produzcan, cada año, saldos positivos o negativos.

Este ha sido el caso en 2017 en que Hidrocarburos Autonómico ha generado un ingreso neto relativamente residual de -430 miles de euros resultado de un ingreso bruto de 2.471 miles y unas devoluciones de -2.901 miles de euros. Sin embargo en 2016 el ingreso fue de +641 miles de euros, con lo que la comparación interanual ha provocado una caída de -1.071 miles de euros.

En relación al Impuesto de Hidrocarburos desglosado en los tres componentes arriba mencionados (no consideramos, por lo mínimo de su importe el Ajuste por Importaciones) se aprecia que, tanto el Ajuste Operaciones Interiores (-12.789 miles de euros) como el Ajuste Ley de Aportaciones (-39.700 miles de euros), han aportado un crecimiento interanual negativo. Tan solo la Gestión Propia presenta variación interanual positiva (+75.930 miles de euros y +7,2% ).

Recordar que los dos Ajustes mencionados tan solo incluyen devoluciones (ingreso negativo) por lo que sus variaciones se deben a crecimientos y decrecimiento de las devoluciones efectuadas.

Debe destacarse que los derechos generados tanto por “Hidrocarburos Gestión Propia” como por el conjunto del “Impuesto sobre Hidrocarburos” han alcanzado, en 2017, su máximo histórico. En el primer caso con 1.127 millones de euros y, en el segundo, con 472,7 miles de euros.

En relación al Presupuesto, el conjunto de Hidrocarburos presenta una ejecución inferior a la prevista en un -3,2% .

## — Impuesto sobre primas de seguros

Los derechos reconocidos por este concepto apenas suponen el 0,5% de los derechos de los capítulos I a VIII.

Los ingresos por este concepto, presentan un estancamiento al pasar de 40.841 miles en 2016 a 40.784 miles de euros en 2017 (-0,1% ). Esta estabilización de un nivel de ingresos elevados

antzeman zen sarreren lehengoratzea ekarri duelako eta, horrela, aurreko ekitaldietan izandako jaitsierak geldiarazi baititu. 2009an gertatu zen bezala, sortutako eskubideetan mantentzen zen etengabeko igoerarekin jarraitu du. Aipatutako hazkuntzek (2008ra arte) kopuru eta portzentaje ezberdinak izan dituzten arren, etengabeak izan dira. Beste salbuespen bat 1999an izan zen, maiatzaren 4ko 2/1999 Foru Dekretu Arauemailea indarrean sartu zelako. Foru dekretu horren bidez, aseguruen eragiketen tratamendua aldatu zen eta salbuespenak osasun eta gaixotasun laguntza aseguruetako eragiketetara zabaldu zen. Eskubide onartuen eta bilketen zenbatekoak berdinak dira, eskubideen % 100 bildu delako.

debe considerarse especialmente relevante ya que supone confirmar la recuperación del ingreso iniciada en 2014 y, de este modo, frenar las caídas sufridas los pasados ejercicios, retomando al igual que en 2009, la senda de crecimiento interanual constante en los derechos generados. Aunque los citados crecimientos (hasta 2008) lo han sido en distintas cuantías y porcentajes han sido constantes. Añadir que otra excepción se produjo en 1999 motivada por la entrada en vigor del Decreto Foral Normativo 2/1999, del 4 de mayo, que modificó el tratamiento de las operaciones de seguro y extiende las exenciones a las operaciones de seguro de asistencia sanitaria y de enfermedad. Las cifras de derechos reconocidos y recaudación son las mismas, ya que se han recaudado el 100% de los derechos.

Adierazi behar da sarreraren muntari eutsi zaiola ingresatu den batez besteko zenbatekoa nabarmen igo delako; hala, zenbateko hori 239 milakoa izan zen 2016an eta 258 milakoa izan da 2017an (+% 8,1). Hazkunde horrek zergadunen kopuruan gertatu den jaitsiera (-13 mila eta -% 7,6) konpentsatu du.

Indicar que el mantenimiento de ingreso se produce por el notable crecimiento en el importe medio ingresado que pasa de 239 miles en 2016 a 258 miles en 2017 (+8,1%). Este aumento compensa  la caída en el número de contribuyentes (-13 miles y -7,6%).

Aurrekontuari dagokionez, emaitza aurreikuspena baino -% 6,4 txikiagoa izan da.

En cuanto al presupuesto el resultado ha sido inferior a la previsión en un -6,4% .

## — Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak

## — Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Kontzeptu hauek onartutako eskubideak, I. kapitulutik VIII.era bitartekoetan jasotzen diren eskubideen % 1,1ekoak dira (2016an, berriz, % 1,1).

Los derechos reconocidos por estos conceptos suponen el 1,1% de los derechos de los Capítulos I a VIII, (el 1,1% en 2016).

Bi aurrekontu-kontzeptu hauek, batera, +% 7,7ko igoera nabarmena izan dute. Igoera hori Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren jokabidea gorabehera gertatu da, -% 10,2 jaitsi baita. Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga nabarmen hazi da, +% 13,4.

Estos dos conceptos presupuestarios presentan,en conjunto, un notable aumento del +7,7% . Este crecimiento se produce a pesar del comportamiento del Impuesto sobre Actos Jurídicos Documentados que cae un -10,2%. El impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales crece un notable +13,4%.

Eskubide onartuak 2016ko 79.796 mila euroetatik 2017ko 85.959 mila euroetara pasatu dira. Horrenbestez, +% 7,7ko igoera egon da, +6.164 mila euro alegia. Bilketaren bilakaera zerbait positiboagoa izan da: 84.189 mila euro bildu dira, eta

Los derechos reconocidos pasan de 79.796 miles en 2016 a 85.959 miles en 2017, lo que supone un aumento del +7,7% y +6.164 miles de euros. Algo más positiva es la evolución que presenta la recaudación que con 84.189 miles recaudados

aurreko ekitaldiarekin erkatuta igoera +% 8,5ekoa izan da.

Sarreren igoera hori (+6.164 mila euro), atal honetan jasotzen diren bost azpikontzeptuen artean, Kostu bidezko Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari bakar-bakarrik dagokio, horren gehikuntza +8,7 milioi eurokoa izan delako (+% 14,8). Atal honetan jasotzen diren beste lau azpikontzeptuek, berriz, urtetik urterako bilakaera negatiboa izan dute. Jarraian, bost azpikontzeptu horien bilakaera aztertuko dugu banan-banan:

## Egintza Juridiko Dokumentatuak. Notarioen agiriak:

Azpikontzeptu hau 15.928 mila eurokoa izan zen 2016an eta 14.389 mila eurokoa izan da 2017an (-1.539 mila). Jaitsiera horren arrazoia (-% 9,7) zergadun bakoitzeko egon den batez besteko ingresoen jaitsiera handian dago, -% 13,2 (1.727 euro izan ziren 2016an eta 1.499 euro izan dira 2016an), eta hori ez da konpentsatu zergadunen kopuruan egon den +% 4ko gehikuntzarekin, (9.225 zergadun 2016an eta 9.596 zergadun 2017).

Aipatu beharra dago joan den ekitaldian ere nabarmen jaitsi zela ingresatutako batez besteko zenbatekoa. Orduan, -% 20,8koa izan zen.

## Egintza Juridiko Dokumentatuak. Merkataritzako agiriak:

Azpikontzeptu honen bilakaerari dagokionez, esan behar da hau ere negatiboa izan dela eta jaitsiera izan duela, 3.197 mila eurokoa izan zen 2016an eta 2.777 milakoa 2017an (-420 mila eta -% 13,2). Jaitsiera hori gertatu da nahiz eta ingresatu den batez besteko zenbatekoa +% 4,6 handitu (60.322 eurokoa 2016an eta 63.105 eurokoa 2017an), baina igoera ez da nahikoa izan zergadunen kopuruaren jaitsiera (-% 17) berdintzeko; jaitsiera hori 53koa izan zen joan den ekitaldian eta 44koa honakoan.

Informazio osagarri gisa, adierazi behar da 452 likidaziok sorrarazi dutela Egintza Juridiko Dokumentatuen barruko merkataritza-agirien ziozko 2,8 milioi euroko zenbatekoa. Likidazioen batez besteko zenbatekoa 6.143 eurokoa izan da.

supone un aumento del +8,5% respecto al ejercicio anterior.

Este aumento de los ingresos (+6.164 miles de euros) se debe, entre los cinco subconceptos que se incluyen en este apartado, únicamente al Impuesto de Transmisiones Patrimoniales Onerosas que presenta un aumento de +8,7 millones de euros (+14,8%). Los otros cuatro subconceptos que se incluyen en este apartado presentan evolución interanual negativa. A continuación examinaremos individualmente la evolución de estos cinco subconceptos:

## Actos Jurídicos Documentados. Documentos Notariales:

Este subconcepto pasa de 15.928 miles de euros en 2016 a 14.389 miles de euros en 2017 (-1.539 miles). La causa de esta caída (-9,7%) reside en el desplome, en un -13,2%, del importe medio ingresado por contribuyente (de 1.727 euros en 2016 a 1.499 euros en 2017) que no ha sido compensado por el +4% de aumento en el número de contribuyentes (de 9.225 en 2016 a 9.596 en 2017).

Mencionar que el pasado ejercicio ya se produjo otra caída del importe medio ingresado, en aquella ocasión alcanzó el -20,8%.

## Actos Jurídicos Documentados. Documentos Mercantiles:

La evolución de este subconcepto es también negativa y cae de 3.197 miles de euros en 2016 a 2.777 miles en 2017 (-420 miles y -13,2%). Esta caída se produce a pesar del aumento en un +4,6% del importe medio ingresado (de 60.322 euros en 2016 a 63.105 euros en 2017) que no es suficiente para compensar la caída en el número de contribuyentes (-17%), al pasar de 53 el pasado ejercicio a 44 en el actual.

Como información adicional indicar que los 2,8 millones de euros de Actos Jurídicos Documentados-Documentos Mercantiles- han sido generados por 452 liquidaciones con un importe medio de 6.143 euros.

Zerga-atal horrek, Merkataritzako Egintza Juridiko Dokumentatuenak, urtetik urterako bilakaera beherakorra izan du 1995etik; urte hartan, 27,2 milioikoa izan zen eta, 2017an, 2,8 milioikoa izan da (% 10,2 ingurukoa).

Esta figura, Actos Jurídicos Documentados Mercantiles, presenta una evolución interanual de continua caída desde los 27,2 millones de 1995 a los citados 2,8 millones en 2017 (apenas el 10,2%).

## Kostubidezko ondare eskualdaketen gaineko zerga:

## Impuesto de Transmisiones Patrimoniales Onerosas:

Zerga honetan, hazkuntza 58.733 mila eurotik 67.408 mila eurorainokoa izan da (+8.676 mila euro eta +% 14,8). Hazkuntza horren arrazoiak bi izan dira: zergadunen kopuruan izan den hazkuntza (+6), aurreko ekitaldian 42.793 izan baitziren eta oraingoan 45.348 baitira, eta ingresatu den batez bestekoan gertatu den hazkuntza nabarmena (+% 8,3). Izan ere zenbateko hori 1.372 eurokoa izatetik 1.486 eurokoa izatera igaro da.

Esta figura aumenta de 58.733 miles de euros a 67.408 miles (+8.676 miles de euros y +14,8%). Este aumento se produce tanto por el incremento en el número de contribuyentes que pasan de 42.793 el pasado ejercicio a 45.348 en el actual (+6%) como al importante crecimiento en el importe medio ingresado (+8,3%) al pasar de 1.372 euros a 1.486 euros por contribuyente.

Kostu bidezko Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari gagozkiola, esan behar da 62.732 agirik sorrarazi dutela eskubideen ziozko 67,4 milioiko zenbatekoa; agirien batez besteko zenbatekoa, berriz, 1.075 eurokoa izan da.

En relación a Transmisiones Patrimoniales Onerosas añadir que el número de Documentos que han generado los 67,4 millones de derechos asciende a 62.732 con un importe medio por Documento de 1.075 euros.

## Sozietateen eragiketen gaineko Zerga:

## Impuesto sobre Operaciones Societarias:

Sarrerei dagokienez 2016ko 1.927 mila euroak 1.377 mila euro izan dira 2017an (-550 mila eta -% 28,5).

El ingreso pasa de 1.927 miles de euros en 2016 a 1.377 miles de euros en 2017 (-550 miles y -28,5%).

Ehunekoaren ikuspegitik aztertuta, jaitsiera nabarmen hori gertatu da zergadunen kopurua hazi arren (+% 0,7), ingresatu den batez besteko zenbatekoaren beherakada berdindu ez duelako. Izan ere, zergadun bakoitzeko zenbatekoa 1.039 eurokoa izan zen 2016an eta 737 eurokoa 2017an (-% 29 ). Batez besteko zenbateko horren beherakada ez da berariaz gertatu eragiketa garrantzitsu jakinen batengatik, ezpada, jaitsiera orokor batengatik, nahiz eta, hein handi batean, beherakadaren arrazoi nagusia 5 zergadun handienen jaitsiera izan.

Esta caída, porcentualmente muy notable, se produce a pesar del leve incremento en el número de contribuyentes (+0,7%) que no compensa el desplome del importe medio ingresado, que cae de 1.039 euros por contribuyente en 2016 a 737 euros en 2017 (-29%). Esta caída del importe medio no se produce por alguna operación especialmente importante sino que se trata de un decremento generalizado aunque la caída en los 5 mayores contribuyentes sirve para explicar gran parte de la bajada.

Ondare eskualdaketen gaineko Zergaren beste azpikontzeptua, eskubide errealen ezarpena, hondar moduan geratu da era praktikan ez du multzoan ekarpenik egiten.

El otro subconcepto del Impuesto de Transmisiones Patrimoniales, Constitución de Derechos Reales, ha quedado como algo residual y, prácticamente, no aporta nada al conjunto.

Aurrekontuei dagokienez emaitzak askotarikoak dira: batetik, ondare eskualdaketei dagokienez, likidatutako eskubideak aurrekontua baino handiagoak dira +% 21,2an. Egintza Juridiko Dokumentatuei dagokienez, ordea, eskubideak aurrekontua baino -% 34,9 txikiagoak dira.

En relación al presupuesto, los resultados son dispares: por un lado en cuanto a Transmisiones Patrimoniales los derechos liquidados son superiores al presupuesto en el +21,2%, mientras que en lo relativo a Actos Jurídicos Documentados los derechos son inferiores al presupuesto en -34,9% .

Egintza Juridiko Dokumentatuek sortutako eskubideen pisua, OE eta EJD guztiekiko, % 20koa da; eta Ondare Eskualdaketan eragindako eskubide orokorrak % 80koak dira.

El peso de los derechos generados por Actos Jurídicos Documentados sobre el total de T.P. y A.J.D. alcanza el 20% frente al 80% que sobre el mismo total suponen los derechos generados por Transmisiones Patrimoniales.

Ondare Eskualdaketei eta Egintza Juridiko Dokumentatuei dagokien atala bukatzeko, komenigarria da figura horrek azken urteetan sarreran izan duen jaitsiera handia aipatzea. Aurreko 10 urteetan (2007-2016) sortutako eskubideen batez bestekoa 117,650 milioi eurotan igo da, eta 2017an sartutako zenbatekoa 85,959 milioi besterik ez da izan, hots, batez besteko horren % 73,1. Aurreko 10 urteetako gehieneko sarrera 2007an gertatu zen, 279,7 91 milioi euro guztira; 2017an, berriz, hamar urte geroago, zifra horren % 30,7 besterik ez da lortu.

Para terminar el apartado correspondiente a Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados conviene hacer una referencia al importante deterioro que ha sufrido el ingreso aportado por esta figura en los últimos años. La media de los derechos generados en los 10 años anteriores (2007-2016) ha ascendido a 117,650 millones de euros, el importe ingresado en 2017 apenas ha alcanzado los 85,959 millones lo que supone el 73,1% de la citada media. El ingreso máximo de los 10 años anteriores se produjo en 2007 alcanzándose los 279,791 millones de euros, en 2017, diez años después, apenas se ha alcanzado el 30,7% de esa cifra.

## — Joko Jardueren gaineko Zerga.

Gutxi gorabehera esanda, zerga sortu berria da, 2014ko ekainean eskubideak ematen hasi zena.

Sarrerak bilakaera positiboa eduki du eta 2016ko 1.992 mila euroko sarrera 2.508 milakoa izan da 2017an (+516 mila eta +% 26,2).

Hazkuntza hori etorri da ingresatutako batez besteko zenbatekoa nabarmen handitu delako (+% 25,9), zergadunen kopurua (37) ez baita aldatu, ez 2016an, ezta 2017an ere.

Aurrekontuari dagokionez betearazpena ezarri zena baino altuagoa izan da, hain zuzen ere +% 23,7.

## — Impuesto sobre Actividades de Juego.

Se trata de un impuesto de relativa nueva creación que empezó a aportar derechos en junio de 2014.

El ingreso ha evolucionado positivamente pasando de los 1.992 miles de euros en 2016 a 2.508 miles en 2017 (+516 miles y +26,2%).

Este aumento se produce exclusivamente por el notable aumento en el importe medio ingresado (+25,9%) ya que el número de contribuyentes se ha mantenido constante en 37, tanto en 2016 como en 2017.

En relación al presupuesto la ejecución ha superado lo previsto en un +23,7%.

— Negutegi Efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga.

Aurrekoa bezala, sortu berria den zerga bat da, 2014ko maiatzean eskubideak ematen hasi zena.

Aurreko ekitaldian izandako jaitsieraren ondotik, sarrerak nabarmen hazi dira, 2016an 1.033 mila eurokoak izan zirelako eta 2017an, berriz, 1.748 milakoak izan direlako (+715 mila euro eta +% 69,2). Zergadunen kopurua zerbait apaldu dela kontuan hartuta (81 izan ziren 2016an eta 78 2017an), sarreretan egon den hazkundearen arrazoia batez besteko sarreretan gertatu den +% 75,8ko hazkundean datza. Zehatzago esanda, azaldu behar da 10 zergadun nagusien kasuan gertatu den igoera (+% 95) izan dela arrazoi nagusia, gainerako 68 zergadunen batez besteko sarrerak +% 41,3 hazi direlako.

Aurrekontuari dagokionez betearazpena negatiboa izan da era aurrez ezari zen sarreraren - % 93,3 izan da.

## III. kapitulua. Tasak eta bestelako diru-sarrerak

Kapitulu honetan onartutako eskubideak -% 8,9 jaitsi dira. I-VII kapituluetako eskubideen % 2,6 baino ez dira (2016an % 3,1).

Eskubide onartuak 225.364 milakoak izan ziren 2016an eta 2017an 205.221 milakoak izan dira, hau da, -20.143 mila euroko beherakada izan da (-% 8,9). Bilketak -% 1,9ko hazkuntza izan du: 2016an 141.240 mila eurokoa izan zen eta 2017an 138.505 milakoa (-% 1,9ko jaitsiera).

Kapitulu hau azpibanatzeko erabiltzen diren 7 osagaien artean, eskubide onartuen urtetik urterako aldakuntza positiboa dute 3k, eta 4k besterik ez negatiboa.

— Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero.

Se trata de un impuesto de nueva creación que, al igual que el anterior, empezó a aportar derechos en mayo de 2014.

Tras la caída experimentada el pasado ejercicio, el ingreso ha repuntado de forma muy importante al pasar de 1.033 miles de euros en 2016 a 1.748 miles en 2017 (+715 miles de euros y +69,2%). Dado que el número de contribuyentes ha caido ligeramente (de 81 en 2016 a 78 en 2017), la causa del aumento en el ingreso reside en el crecimiento en un +75,8% del ingreso medio aportado. Matizando más resaltar que el incremento del ingreso de los 10 principales contribuyentes (+95%) es la causa principal del aumento, ya que los otros 68 aumentan su ingreso medio en un +41,3%.

En relación al Presupuesto la ejecución ha sido negativa quedándose en el -93,3% del ingreso previsto.

## Capítulo III. Tasas y Otros Ingresos

Los derechos reconocidos en este Capítulo caen un -8,9% . Apenas suponen el 2,6% de los derechos de los Capítulos I a VIII (3,1% en 2016).

Los derechos reconocidos pasan de 225.364 miles de euros en 2016 a 205.221 miles en 2017 con una caída de -20.143 miles (-8,9% ). La recaudación ha pasado de 141.240 miles en 2016 a 138.505 miles en 2017 con una caída del -1,9% .

Entre los 7 componentes en que subdividimos este capítulo, 3 presentan variación interanual de derechos reconocidos positiva y solo 4 la presenta negativa.

Jarraian, zazpi taldeetako bakoitza komentatuko da.

1.- “Berandutza-interesak”.- Osagai honen ziozko darrerak nabarmen murriztu dira: 2016an, 71,049 milioikoak izan ziren eta 2017an 42,623 milioikoak (-28,425 milioi eta -% 40). Aldakuntza handi hori gertatu da, batez besteko zenbatekoaren beherakada handiaren ondorioz, 1.058 eurokoa izan baitzen 2016an eta 622 eurokoa 2017an. Horrezaz gain, zergadunen igoera oso apala izan da: 67.136 izan ziren 2016an eta 68.475 2017an.

Zehaztu beharra dago batez besteko zenbateko horren jaitsiera zergadun nagusienetan metatzen dela. 10 zergadun nagusiei gagozkiela, sortutako eskubideen ziozko sarrerak -24,1 milioi euro txikitu dira (33,9 milioikoak izan ziren 2016an eta 9,8 milioikoak 2017an), hau da guztizko beherakadaren % 84,7.

Figura honekin amaitzeko aipatu behar sortutako eskubideen 42,6 milioietatik 11,6 milioi bildu direla (% 27,2).

2.- “Premiamendu-errekargua” ”.- Osagai horri dagokionez, sarrerak zerbait behera egin du, hain zuzen, 2016ko 14,883 milioi eurotik 2017ko 14,104 milioi eurora (-0,8 milioi eta -% 5,2). Jaitsiera hori hala zergadunen kopuruan izandako jaitsiera txikiagatik (2016ko 28.803tik 2017ko 28.598ra, (-% 0,7) nola ingresatutako batez besteko kopuruan izandako neurrizko jaitsieragatik gertatu da (2016an 517 euro izatetik 493 euro izatera 2017an, (-%4,5).

Eskubideen 14,1 milioietatik 3,9 milioi bildu dira (% 27,5).

3.- "Jokoaren gaineko Tasak”. Elementu hau 2016an 25.302 mila euro izatetik 2017an 25.560ra milara pasa da (+258 mila euro eta +% 1 ).

“Jokoaren gaineko Tasak” atalaren barruan sartuta dauden 4 osagai garrantzitsuetatik berariaz azpimarratu behar da “makinek eta

A continuación se comenta cada uno de los siete grupos.

1.- “Intereses de demora”.- Este componente reduce de forma muy importante su ingreso al pasar de 71,049 millones en 2016 a 42,623 millones en 2017 (-28,425 millones y -40%). La causa de esta fuerte variación es  la fuerte caída del importe medio, que pasa de 1.058 euros en 2016 a 622 euros en 2017,  muy superior al leve incremento en el número de contribuyentes de 67.136 en 2016 a 68.475 en 2017.

Conviene precisar que la mencionada caída del importe medio se concentra en los mayores contribuyentes. Los 10 mayores reducen -24,1 millones de euros los derechos generados (de 33,9 millones en 2016 a 9,8 millones en 2017), lo que supone el 84,7% de la caída total.

Para finalizar con esta figura mencionar que de los 42,6 millones de derechos generados se han recaudado 11,6 millones (27,2%).

2.- “Recargo de Apremio”.- Este componente reduce su ingreso de forma moderada al pasar de 14,883 millones de euros en 2016 a 14,104 millones en 2017 (-0,8 millones y -5,2% ). Esta caída se produce tanto por la ligera caída del número de contribuyentes que pasa de 28.803 en 2016 a 28.598 en 2017 (-0,7% ), como por la moderada caída del importe medio ingresado que cae en un -4,5% al pasar de 517 euros en 2016 a 493 en 2017.

De los 14,1 millones de derechos se han recaudado 3,9 millones (27,5%).

3.- “Tasas sobre el Juego”.- Este componente pasa de 25.302 miles de euros en 2016 a 25.560 miles en 2017 (+258 miles de euros y +1% ).

De los 4 componentes relevantes incluidos en “Tasas sobre el Juego” destaca especialmente el importe aportado por “Máquinas y aparatos

aparatu automatikoek" egiten duten ekarpena, 19,3 milioi euro, munta hori figura honen barruko eskubide osoen % 75,5 delako. Horren eboluzioa apur bat positiboa izan da +0,1 milioi hazi delako (+% 0,6).

Garrantziari dagokionez bigarren figura "Bingo Elektronikoa" izan da, 3,01 milioi eurorekin figuraren % 11,9 baita. Joan den ekitaldian, "Bingo Elektronikoak" 3,03 milioi batu zituen eta, beraz, hazkuntza apala izan du, hain zuzen ere, +% 0,8koa.

Azken osagai garrantzitsua "Pilotalekuko apustuengatiko tasa" da, kasu honetan 2,4 milioi eurorekin; munta hori sarreren % 9,6 da. Tasa hori +% 9,9 hazi da eta, hortaz, urtetik urterako igoerarik handiena izan du jokoaren ziozko tasa guztietan.

"Jokoaren gaineko Tasak" atalarekin amaitzeko adierazi behar da eskubideen 25,3 milioietatik 24,8 milioi bildu direla (% 97,9).

Jokoengatiko Tasen multzo osoaren eskubideen egikaritzapena aurrekontuan ezarri zena baino -% 1,3 baxuagoa izan da.

Informazio osagarri gisa, aipatu behar da jokoaren ziozko tasek etengabeko jaitsiera izan dutela 12 urtean, 2003tik 2015era arte. Aldi horretan, sarrerak nabarmen txikitu dira, 44,5 milioi eurotik (2003) 24,2 milioi eurora (2015). Hala ere, azken bi ekitaldietan, sarrerak zerbait igo dira: 25,6 milioikoak izan ziren 2017an.

4.- "Beste sarrera batzuk" (+9,8 milioi euro eta +% 50,9 ). Atal honek izugarri igartzen du "Beste Sarrerak" azpikontzeptuan izan den hazkuntza izugarria, 2016an 0 milioi izan zirelako eta 2017an +7,8 milioi.

"Bestelako sarrerak" deritzon atalak jasotzen dituen 24 kontzeptuetan, horietako bik sorrarazitako sarrerak nabarmendu behar dira: "Zerga-delituen ziozko erantzukizun zibila", 17 milioi euroko zenbatekoa ekarri zuena 2017an eta "Bestelako sarrerak", 7,8 milioi euroko zenbatekoa ekarri zuena. Entre estos dos subconceptos aportan el 85,8% del ingreso de este apartado.

automáticos" que con sus 19,3 millones de euros supone el 75,5% de los derechos totales de esta figura. Su evolución ha sido ligeramente positiva al aumentar +0,1 millones (+0,6%).

La segunda figura en importancia es el "Bingo Electrónico" que con sus 3,01 millones de euros aporta el 11,9% de esta figura. El pasado ejercicio "Bingo Electrónico" alcanzó los 3,03 millones por lo que se ha producido un muy leve incremento de +0,8%.

El último componente relevante es la "Tasa por apuestas de frontón" que con sus 2,4 millones de euros aporta el 9,6% del ingreso. Esta Tasa ha aumentado en un +9,9% presentando el mayor incremento interanual de todas las Tasas de Juego.

Para finalizar con las "Tasas sobre el Juego" mencionar que de los 25,6 millones de derechos se han recaudado 25,2 millones (98,7%).

La ejecución de derechos del conjunto de Tasas de Juego es inferior a la cifra presupuestada en un -1,3%.

Como información adicional mencionar la caída ininterrumpida que las Tasas sobre el Juego han sufrido durante 12 años, de 2003 a 2015. En este periodo el ingreso ha caído de 44,5 millones en 2003 a 24,2 millones en 2015. Los dos últimos ejercicios han recuperado levemente hasta los 25,6 millones de 2017.

4.- "Otros Ingresos" (+9,8 millones de euros y +50,9% ). Este apartado se ve arrastrado por el fortísimo crecimiento del subconcepto "Otros Ingresos" que pasa de 0 millones en 2016 a +7,8 millones en 2017.

De los 24 subconceptos agrupados en "Otros Ingresos" destacan los ingresos aportados por 2 de ellos "Responsabilidad civíl por delitos fiscales" con 17 millones de euros en 2017 y "Otros Ingresos" con 7,8 millones de euros. Entre estos dos subconceptos aportan el 85,8% del ingreso de este apartado.

Nolanahi ere den, bi azpikontzeptu horiei dagokienez, esan behar da bi zergadunek 21,7 milioiko ekarpena egiten dutela, hau da, atal honetan bildutako 28,9 milioi euroko zenbatekotik % 75,1. Bi zergadunek bakarrik egindako ekarpenaren garrantzia aintzat hartuta, esan beharra dago atal honetako sarrerak oso hegakorrak direla eta, hortaz, unean uneko mugimenduek eragin handia izan dezaketela.

Dentro de estos dos subconceptos debe destacarse que entre dos contribuyentes el ingreso alcanza los 21,7 millones que representa el 75,1% de los 28,9 millones de este apartado. Este ratio aportado por tan sólo dos contribuyentes indica lo volátil que es el ingreso de este apartado que lo hace muy vulnerable a movimientos puntuales.

Halaber, aipatutako aparteko sarrera horien ondorioz, esan beharra dago 28,9 milioiko zenbatekoa segida historiko osoan atal honek lortu duen emaitzarik onena dela.

Como consecuencia directa de estos ingresos excepcionales se debe indicar que estos 28,9 millones representan el importe más elevado alcanzado por este apartado en toda la serie histórica.

"Bestelako sarrerak" izeneko atal horren barruan, "Behin-behineko baliabideak" deritzon azpiatala nabarmendu behar da; izan ere 1,6 milioi euroko ezohiko sarrera bati esker, +% 262 igo da horren ekarpena. Hala, 0,5 milioikoa izan zen 2016an eta 2 milioikoa 2017an.

Dentro de este apartado de "Otros Ingresos" debe destacarse el subconcepto "Recursos Eventuales" que, debido a un ingreso extraordinario de 1,6 millones de euros, aumenta su aportación en un +262% al pasar de 0,5 millones en 2016 a 2 millones en 2017.

5.- "Itzulketak". Munta murriztu batzuen barruan, figura honek beherakada nabarmena izan du bere eskubideak 1.251 mila eurokoak izan zirelako 2016an eta 595 milakoak 2017an (-655 mila eta -%52,4).

Berariaz garrantzitsua izan den sarrerarik eduki gabe, ingresatu den batez besteko zenbatekoa -% 34,3 jaitsi da eta zergadunen kopurua ere jaitsi egin da, (aurreko ekitaldian, 80 izan ziren eta oraingoan 58 (-% 27,5). Horiexek dira, hain zuzen, aipatutako beherakadaren zuzeneko arrazoiak.

5.- "Reintegros". Dentro de unos importes reducidos, esta figura presenta una importante caída al pasar sus derechos de 1.251 miles de euros en 2016 a 595 miles en 2017 (-655 miles y -52,4%).

Sin que exista ningún ingreso especialmente relevante el importe medio ingresado cae un -34,3% es causa directa del descenso citado, junto con la caída en el número de contribuyentes, al pasar de 80 el pasado ejercicio a 58 en el actual (-27,5%).

6.- "Beste tasa eta prezio publiko batzuk" (+362 mila euro eta +% 0,5). Bi azpikontzepturen jokabidearen eragin handia izan du atal honek: bada, biek ala biek atal honetan ingresatutako zenbatekoaren % 93,3 ekarri dute, hau da, atal honetan jasotzen diren 21 azpiataletan bildu diren 70,4 milioietatik 65,7 milioi. Zehatzago esanda:

6.- "Otras Tasas y Precios Públicos" (+362 miles de euros y +0,5%). Este apartado está fuertemente influenciado por el comportamiento de dos subconceptos que, entre los dos, han aportado el 93,3% del ingreso de este apartado, 65,7 millones de los 70,4 millones aportados por el conjunto de 21 subconceptos de este apartado:

– “Desgaituentzako egonaldiak” azpiatalean, 6,574 milioiko zenbatekoa izan zen 2016an eta 6,612 milioiko zenbatekoa 2017an (+0,038 milioi eta +% 0,6).

Hazkunde txiki horren ondorioz, azpiatal hori dugu atal honetako bigarren garrantzitsuena, guztizko sarreren % 9,4ko ekarpena egiten duela.

– “Adinekoen egonaldien ziozko prezio publikoak” deritzon azpiatalak hazkuntza izan du, 2016an 58,419 milioi izatetik 59,071 milioi izatera 2017an (+0,651 milioi). Hazkuntza hori onuradunen kopuruaren igoerari esker gertatu da (6.759 izan ziren 2016an eta 2017an 6.889), batez besteko zenbatekoaren -% 0,8ko jaitsiera berdindu baitu (8.643 eurotik 8.575 eurora).

7.- “Zehapenak”.- Onartutako eskubideetan jaitsiera moderatua izan da, 2016an 23,684 milioi izatetik 23,024 milioi izatera igaro baita 2017an (-0,660 milioi eta -% 2,8). Jaitsiera gertatu da zerga honen eraginpeko zergadunen kopurua gutxi jaitsi delako (2016an 5.085 izatetik 5.056 izatera 2017an, -% 0,6), eta likidaturiko zehapenen batez besteko zenbatekoa ere era moderatuan gutxitu delako (2016an 4.658 euroko izan bazen, 4.554 euro da 2017an, -% 2,2).

Nabarmentzekoa da, premiamendu-errekarguarekin eta berandutza-interesekin batera, zehapenek dutela ratiorik txikiena Eskubideen gaineko Bilketan. 2017an eskubideen 23,024 milioi bildu ondoren, 7,956 milioi baino ez dira bildu (% 34,6). 2016an ratio hori % 37,3koa izan zen.

Aurrekontuari dagokionez, oso positiboa da eskubideen gaineko datua: Aurrekontuko 13,220 milioien aurrean, 23,024 milioi euroko eskubideak sortu dira.

Aipatu beharra dago, azken 5 urtoetan, zehapenen zioz bildutako eskubideen zenbatekoa etengabe jaitsi dela 2012tik (53,6 milioi) 2017ra (arestian esandako 23 milioi). Hau da -30,5 milioi eta -% 57).

– “Estancias personas discapacitadas” que pasa de 6,574 millones en 2016 a 6,612 millones en 2017 (+0,038 millones y +0,6%).

Este ligero aumento consolida esta figura como la segunda más importante de este apartado al que aporta un 9,4% de su ingreso total.

– “Precio Público Estancias de Personas Mayores” que crece de 58,419 millones en 2016 a 59,071 millones en 2017 (+0,651 millones). Este incremento se produce por el aumento en el número de beneficiarios (de 6.759 en 2016 a 6.889 en 2017) que compensa la caída en el -0,8% del importe medio (de 8.643 a 8.575 euros).

7.- “Sanciones”.- Los derechos reconocidos disminuyen de forma moderada al pasar de 23,684 millones en 2016 a 23,024 millones en 2017 (-0,660 millones y -2,8% ). Esta caída se produce tanto porque el número de contribuyentes afectados por esta figura se reduce levemente al pasar de 5.085 en 2016 a 5.056 en 2017 (-0,6% ) como a la moderada caída en el importe medio de las sanciones liquidadas que pasa de 4.658 euros en 2016 a 4.554 euros en 2017 (-2,2% ).

Destacar que, junto con el Recargo de Apremio y los Intereses de Demora, con el 27,2%, las sanciones es la figura que presenta el ratio más bajo de Recaudado sobre Derechos. Frente a los 23,024 millones de derechos de 2017, apenas se han recaudado 7,956 millones (el 34,6% ). En 2016 este ratio fue del 37,3%.

En relación al Presupuesto el dato de Derechos es muy positivo: frente a los 13,220 millones presupuestados se han generado derechos por 23,024 millones.

Mencionar que los últimos 5 años los derechos aportados por las Sanciones han caído de forma ininterrumpida desde los 53,6 millones de 2012 a los citados 23 millones de 2017 (-30,5 millones y -57%).

Kapitulu honen barruko bilketak badu berezitasun bat, sortu diren eskubideei dagokienez, bederatzi kapituluen barruan koefizienterik baxuena aurkeztu ohi duela, hain zuzen ere % 67,5ekoa (% 62,6 2016an).

Esan behar da kapitulu honek dituen 44 azpikontzeptuetatik eta 2017ko ekitaldian sarrerak sorrarazi dituztenetatik, bederatzik kapitulu osoko eskubide guztien % 91,8 ekarri dutela (% 94,3 2016an).

Aurrekontuari dagokionez, kapituluko eskubide onartuetan gehikuntza nabarmena izan da, +% 39koa aurrekontuan zenbatetsi zirenak (147.100 mila izan ziren, eta onartu direnak 205.221 mila). Bilketa aurrekontuari dagokionez, emaitza negatiboa da, aurrekontuan aurreikusitakoa baino -% 6,2 gehiago bildu baita.

Kapituluak duen egin gabeko ordainketen maila altua kontuan hartuta benetan hartu behar da kontuan memoria honen sarrerako azken bi idatz-zatietan finantza doikuntzari eta eskubideen aurrekontuarekin erkatuta gertatzen den distortsioari buruz esan dena.

## IV. kapitulua. Transferentzia arruntak

Kapitulu honen barruko eskubide onartuak inolako eragozpenik gabe gauzatu ohi dira eta, areago, hurrengo ekitaldiaren barruko bi hilabeteko epe motzean; beraz, bilketa bazter utzita aztertuko ditugu, horrek izango duen eragin bakarra diruzaintzakoa izango delako.

Aurreko paragrafoan adierazi dena arruntena izan arren, zehaztu behar da 2017ko zorpekinetatik, hau da, 233,885 milioiko zenbatekotik, 71,016 milioi kobratzeke zeudela ekitaldia itxi zenean. Kopuru horretatik, 65,220 milioi badagozkio Estatuko APMZ zuzkidurei (autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistema). Zorpekin horiek datozen lau urteotan (2018-2021) adostutako egutegi baten arabera kobratuko dira.

La recaudación de este capítulo tiene la particularidad de ser habitualmente la que, en relación a los derechos generados, presenta el coeficiente más bajo entre los nueve capítulos, alcanzando el 67,5% (62,6% en 2016).

Mencionar que entre nueve de los 44 subconceptos presupuestarios en que se distribuye el Capítulo, y han generado ingreso en 2017, se ha generado el 91,8% de derechos del total de este Capítulo (el 94,3% en 2016).

En relación al presupuesto, los derechos reconocidos del Capítulo presentan un importante incremento del +39% (de 147.100 miles de euros presupuestados a 205.221 miles reconocidos). En relación al presupuesto de recaudación el resultado es negativo al haber sido recaudado un -6,2% sobre lo presupuestado.

Debido al alto nivel de pendiente del Capítulo, conviene tener especialmente presente lo indicado en los dos últimos puntos de la introducción de esta Memoria en relación al Ajuste Financiero y la distorsión que se produce en la comparación con el presupuesto de derechos.

## Capítulo IV. Transferencias Corrientes

Los derechos reconocidos en este capítulo se suelen materializar sin dificultad y además, en el breve plazo de unos meses del ejercicio siguiente, por lo que vamos a analizarlos olvidándonos de la recaudación que únicamente tendría importancia por su repercusión en la tesorería.

Si bien lo indicado en el párrafo anterior es lo más habitual, debe precisarse que de los 233,885 millones de contraido en 2017 quedaron pendientes de cobro, a cierre de ejercicio, 71,016 millones de los que 65,220 millones corresponden a Dotaciones SAAD (Sistema para la Autonomía y la Atención a la Dependencia) del Estado. Este pendiente se cobrará según un calendario acordado en los 4 años siguientes (2018-2021).

Kapitulu honetako ekitaldi arrunteko kobratzeke dagoen gainerakoaren zatirik handiena bildu da txosten hau idatzi orduko (gutxi gorabehera, % 94).

La mayor parte del resto del pendiente de cobro del ejercicio corriente de este capítulo, a la fecha de redacción de este informe, ya ha sido recaudado (alrededor del 94%).

Kapitulu honen barruan sortu diren eskubideak (233.885 mila euro) I. kapitulutik eta VIII.era bitartekoetan deskribatzen diren eskubideen % 3 dira (% 2,4 berriz, 2016an).

Los derechos generados por este capítulo (233.885 miles de euros) suponen el 3% de los derechos de los Capítulos I a VIII (2,4% en 2016).

Kapitulu honetako eskubideek igoera nabarmena izan dute: 2016an 171.649 mila euro ziren eta 2017an 233.885 mila euro izan dira (+62.236 mila euro eta +% 36,3).

Los derechos de este capítulo sufren un importante ascenso al pasar de 171.649 miles de euros en 2016 a 233.885 miles de euros en 2017 (+62.236 miles de euros y un +36,3% ).

Ondoren, kapitulu honetako bost osagaietako bakoitzaren bilakaera.

Pasamos a comentar la evolución de cada uno de los cinco compomentes de este capítulo.

1.- “Estatuaren transferentziak: urtetik urterako bilakaera izugarri ona dute eta 2016ko 52,616 milioietatik 2017ko 153,486 milioietara (+100,870 milioi eta +% 191,7) igaro da.

